

# ERRAN NAHI BAITA BIRFORMULATZAILE ESPLIKATIBOA GAURKO EUSKARAN\*

Xabier Alberdi Larizgoitia

Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea

## Abstract

*This article presents a detailed study of the present-day use of the Basque discourse marker erran/esan nahi baita ('that is to say'). This is an explanatory reformulator by means of which the speaker presents a reformulation of something said in the previous utterance (either a clause that forms part of the current sentence, or the preceding sentence) in order to express it more clearly or explain it. In the article I will examine the marker's values; literary tradition; form and origin; present-day variants; equivalent expressions; position; punctuation; syntax; frequency, medium (written or spoken), register and text type; equivalents in other languages; and discourse value.*

## 1. Atarikoak

Diskurtso-markatzaile jakin batzuk —birformulatzaileak— aztertzen dituen iker-lerro zabalago baten emaitza da azterlan hau<sup>1</sup>. Artikulu honetan halako xehetasun batez aztertuko dut *erran nahi baita* birformulatzaile esplikatiboaren egungo erabilera.

Diskurtso-markatzaileen<sup>2</sup> azterketak perpausaren maila gainditzen du eta horregatik geratu izan da gaia ohiko azterketa gramatikaletatik kanpo. Alde horretatik salbuespen ongi etorriak dira gramatika batzuetan diskurtso-markatzaileei eta lokailuei eskaini zaizkien ikerlanak (Euskaltzaindia 1990; Martín Zorraquino, Portolés 1999; Real Academia Española, Asociación de Academias de la Lengua Española 2010).

---

\* Artikulu hau Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitateak (UPV/EHU) —Unibertsitatea-Gizartea modalitatean— finantzatu duen US10/10 «Euskarazko diskurtso-markatzaileen hiztegia (I) / Diccionario de marcadores discursivos del euskera (I)» ikerketa-proiektuaren emaitzetariko bat da. Euskal Irrati Telebistarekin (EITB) eta Elhuyar Fundazioarekin sinatu ditugun lankidetzat-hitzarmenei esker garatzen ari gara proiektua. Artikulua, halaber, ni partaidea naizen IT414-10 talde egonkortuaren ikerketaren emaitzen artean sartzen da.

<sup>1</sup> Ikus aldizkari honetan bertan (Alberdi 2011).

<sup>2</sup> Autore askoren iritziz, 'diskurtso-markatzaile', 'lokailu' ('conector') eta 'operadore' kontzeptuak bereiztea komeni da. Diskurtso-markatzaileena kategoria funtzional (semantiko-pragmatiko) zabala da eta beraren barruan bi azpikategoria bereizten dira: lokailuak (enuntziatuen arteko lotura semantiko-pragmatikoa ezartzen duten markatzaileak) eta operadoreak (beren zeregina enuntziatu baten barruan betetzen duten markatzaileak).

Gaztelaniari buruzko ikerketetan, esaterako, ia ez dago partikula bat bera ere azterketa monografikoren bat ez duenik (Vázquez Veiga 2011: 6). Euskaraz, berriz, diskurtso-markatzaile asko daude oraindik deskribatu gabe. Bestalde, begien bistakoa da hiztegiek diskurtso-markatzaileen berri emateko dituzten mugak, halamoduz eta zeharka baizik ezin baitituzte definitu edo azaldu halako partikulak. Ondorioa da guztiz beharrezkoak ditugula diskurtso-markatzaileei buruzko azterketa monografikoak, eta, hain zuzen ere, hutsune hori betetzera dator nire azterlan hau.

Ikerlan honetarako erabili dugun corpusak egungo euskara zaindua islatu nahi du eta honela osatuta dago<sup>3</sup>:

A1. ZIO corpusa <sup>4</sup>	1,0 milioi testu hitz
A2. UPV/EHUko eskuliburu itzuliak	5,5 milioi testu hitz
A3a. Zuzenbidea / lege-testuak	4,1 milioi testu hitz
A3b. Zuzenbidea / testu akademikoak	2,5 milioi testu hitz
A4. Pentsamenduaren Klasikoak <sup>5</sup>	10,7 milioi testu hitz
B1a. EPD liburuak <sup>6</sup>	10,2 milioi testu hitz
B1b. EPD prentsa <sup>7</sup>	10,5 milioi testu hitz
B2. ZT Corpusa <sup>8</sup>	6,6 milioi testu hitz
C1. ETBko dokumentalak	0,5 milioi testu hitz
C2. Goenkale corpusa <sup>9</sup>	11,0 milioi testu hitz
GUZTIRA	62,6 milioi testu hitz
Jatorrizkoak	35,7 milioi testu hitz
Itzulpenak	26,9 milioi testu hitz
GUZTIRA	62,6 milioi testu hitz

Guztira 62,6 milioi testu-hitz ditu corpusak eta halako oreka bat lortu da testu itzulien eta jatorrizkoen artean. Testu mota batzuk biltzen ditu (akademikoak, lege-testuak, prentsa, saiakera) eta, bereziki, ahozko hizkuntzara hurbiltzen diren bi azpi-

<sup>3</sup> Corpusari dagokionez, eskerrak eman behar dizkiot lehenik Ametzagaiña I+G+b taldeko Josu Landari, corpusa arakatzeko tresna ezin hobea —eta gure beharretara egokitua— sortu eta ikertaldearen eskura jarri duelako; orobat eskertu behar diot UPV/EHUko Euskara Institutuaren zuzendari Pello Salabururi (<http://www.ei.ehu.es>), institutuaren corpusak gure zerbitzura jarri dituelako (ZIO, Pentsamenduaren Klasikoak, Ereduzko Prosa Dinamikoa eta Goenkale). UPV/EHUko Euskara Zerbitzuaren zuzendari Jesus Mari Makazagari eskertu behar diot, halaber, EHUko ikasliburu itzuliak gure eskura jarri izana. EITBrekiko lankidetzari esker eta, zehazki, Asier Larrinagaren bitartekotzari esker eskuratu dugu ETBko dokumentalen corpusa. Elhuyar Fundazioarekiko lankidetzaz hitzarmen baten bidez eskuratu ditugu Zientzia eta Teknologiaren corpuseko testuak (ZTC). Eta, azkenik —baina ez azken—, Joseba Ezeiza sailkide eta adiskideari zor dizkiot zuzenbideko testuen corpusak (Garalex corpusa: <http://www.hizlan.org/db-zuzenbidea/>).

<sup>4</sup> <http://www.chu.es/chg/zio/>

<sup>5</sup> <http://ehu.es/chg/pkc/>

<sup>6</sup> <http://ehu.es/chg/epd/>

<sup>7</sup> <http://ehu.es/chg/epd/>

<sup>8</sup> Zientzia eta Teknologiaren Corpusa: <http://www.ztcorpusa.net/cgi-bin/kontsulta.py>

<sup>9</sup> <http://ehu.es/chg/goenkale/>

corpus ditu: alde batetik, Goenkale, zeinak hein batean lagunarteko erregistroa imitatzen baitu; eta, bestetik, ETBko dokumentalen corpusa, zeinak, entzunak izateko testuen bidez, erregistro zaindua islatzen baitu.

## 2. *Erran nahi baita* diskurtso-markatzailea: birformulatzaile esplikatiboa

Martín Zorraquino-k eta Portolés-ek (1999: 4057) honela definitzen dituzte diskurtso-markatzaileak:

Los marcadores del discurso son unidades lingüísticas invariables, no ejercen una función lingüística en el marco de la predicación oracional —son, pues, elementos marginales— y poseen un contenido coincidente en el discurso: el de guiar, de acuerdo con sus distintas propiedades morfosintácticas, semánticas y pragmáticas, las inferencias que se realizan en la comunicación.

Diskurtso-markatzaileen ezaugarri semantiko, sintaktiko<sup>10</sup> eta pragmatiko nagusietako batzuk ditu *erran nahi baita* esapideak: a) elementu aldagaitza da (nola-baiteko lexikalizazioa eta gramatikalizazioa jasan duena); b) hartzaileari modu jakin bateko inferentziak egiten laguntzen dio, hots, inferentzia-erregela jakin bat ematen dio hartzaileari informazioa prozesatzeko (hain zuzen ere, beherago azalduko dudanez, birformulazio esplikatiiboari dagokiona); c) zeregin pragmatiko-diskurtsi-boa betetzen duenean, *erran nahi baita* esapidearen esanahia hitz-segidaren esanahi kontzeptualetik harantzagoa doa (hots, nolabait, uztarturik daude esapidean esanahi kontzeptuala —zertxobat ihartua<sup>11</sup>— eta jarraibidezko esanahia edo prozesatze-esanahia<sup>12</sup>).

Zehazki, birformulatzaileen artean sailkatu ohi dira *erran nahi baita* eta haren gisako diskurtso-markatzaileak. Eta behin puntu honetara iritsita, birformulazioa eta birformulatzaileak zer diren azaldu beharrean gaude. Hartzaileari edo solaskideari aurreko diskurtso-atala egokiro interpretatzen laguntzeko gauzatzen den diskurtso-eragiketeta bat da birformulazioa eta honetan datza funtsean:

Desde nuestra perspectiva, el proceso de reformulación consiste en volver sobre el contenido de un miembro o de un enunciado anterior o sobre el acto de enuncia-

<sup>10</sup> Perpausoko predikazioaren esparruan funtzio sintaktikorik ez betetzea da diskurtso-markatzaileen bereizgarri nagusietako bat: *alegia, hots, hau da...* markatzaileek, esaterako, erabat betetzen dute baldintza hori. Dena dela, alde horretatik berezia da *erran nahi baita* esapidea, predikatu arrunt baten (*erran nahi da*) gramatikalizazioz sortua baita.

<sup>11</sup> Hona Martín Zorraquino eta Portolés-en hitz argigarriak (1999: 4060): “Otro problema en la aplicación del criterio de invariabilidad de los marcadores se presenta con su distinto grado de gramaticalización. Los marcadores del discurso proceden de la evolución de una serie de sintagmas que, de una parte, van perdiendo sus posibilidades de flexión y combinación, y, de otra, van abandonando su significado conceptual y se especializan en otro de procesamiento.”

<sup>12</sup> Garai batean esaten zen diskurtso-markatzaileek ez zutela esanahi kontzeptualik. Baina, Martín Zorraquino-k (2010: 170) azaltzen duenez, azken hamarkadan jarrera malguagoa agertu dute autore batzuek diskurtso-markatzaileen esanahiari buruz: “He destacado especialmente el giro que se ha producido en los últimos diez años en el marco de la Teoría de la Relevancia respecto a la caracterización del significado de los marcadores del discurso. Las propuestas de Blakemore (2002) van en la línea de reconocer que las partículas discursivas pueden codificar significado de procesamiento y significado conceptual, por lo que la autora considera que hay varios tipos o grupos de marcadores del discurso.”

ción, para expresarlo de otra manera equivalente o distinta. Se trata de un procedimiento de reinterpretación discursiva que evidencia la intencionalidad del hablante de guiar al interlocutor para que interprete el mensaje de la manera adecuada. (Garcés 2008: 75)

Birformulazioa, beraz, diskurtsoan lehenago adierazitakoa bestelako hitzez berradieraztea edo birformulatzea da. Hiztunak bere diskurtsoaren kontzientzia hartzen du eta, egin duen formulazioa guztiz gogobetegarria iruditu ez zaionez, beste hitz batzuen bidez edo ustez argiagoa den formulazio baten bidez saiitzen da adierazten har-tzaileari adierazi beharrekoa.

Eta zeregin horretarako, besteak beste, birformulatuzaileak baliatzen ditu hiztunak. Hona hemen zer atal bereizten diren ohiko birformulazio batean:

- (1) Botikekin batera, depresioaren aurkakoak ere aurkitu zituzten, eta hasiera batean, {*heriotza bi botika ezberdin horien nahasketak eragin zuela*} plazaratu zen, [*alegia*, *bere buruaz beste egin zuela txirrindulari obiak*]. [EPD-prentsa, Berria]

Birformulakizuna [p]	(...){ <i>heriotza bi botika ezberdin horien nahasketak eragin zuela</i> } plazaratu zen,	
Birformulazioa [q]	Birformulatuzailea	<i>alegia</i> ,
	Atal birformulatuzailea (azalpena)	<i>bere buruaz beste egin zuela txirrindulari obiak.</i>

Autore batzuek (Martín Zorraquino, Portolés 1999; Martí Sánchez 2008) lau birformulatuzaile mota nagusi hauek bereizten dituzte:

- 'Explicativos': *o sea, es decir, a saber, esto es...*
- 'De rectificación': *mejor dicho, mejor aún, más bien...*
- 'De distanciamiento': *en cualquier caso, en todo caso, de todos modos...*
- 'Recapitulativos'<sup>13</sup>: *en suma, en conclusión, en definitiva, en fin, al fin y al cabo...*

Fuentes-ek (2010), berriz, honako hiru azpisail hauek baino ez ditu bereizten<sup>14</sup>:

- 'Explicación': *o sea, es decir, a saber, esto es, dicho de otra manera...*
- 'Corrección': *mejor dicho, antes bien, por mejor decir, bueno 3, digo 1, en fin 2...*
- 'Concreción': *concretamente, en concreto 1, en particular 1, específicamente, particularmente 4, sin ir más lejos 1...*

Aurreko sailkapenak uztartuz, euskarazko birformulatuzaileak honela sailkatzea proposatzen dut:

<sup>13</sup> 'De generalización' deitzen die Martí Sánchez-ek (2008).

<sup>14</sup> Birformulatuzaileetatik kanpo uzten ditu gainerakoak: kontzesiboan sailean sartzen ditu *en cualquier caso, en todo caso, de todos modos* eta antzekoak; eta aparteko sail batean sartzen ditu 'recapitulativos' direlakoak (*en suma, en definitiva, en conclusión...*).

BIRFORMULATZAILEAK		
a) Esplikatiboak	<i>Alegia, hau da, hots, erran nahi baita...</i>	
b) Zehaztaileak	<i>Besteak beste, zehazkiago, zehatz-mehatz...</i>	
c) Laburbiltzaileak	c1) Laburbiltzaile hutsak	<i>Laburtuz, laburbilduz...</i>
	c2) Berrazterketa edo berrausnarketa adieraztekoak («de reconsideración»)	<i>Azken batean, azken finean...</i>
d) Urruntzaileak	<i>Edozein modutan (ere), nolana (ere), dena dela...</i>	
e) Zuzentzaileak	<i>Hobeto esan, bestela esan(da), egia esanda...</i>	

### 1. taula

Euskarazko diskurtso-markatzaile birformulatzaileen sailkapena

Bestalde, aurreko sailkapenean bada halako mailaketa bat birformulazioaren urruntze-mailari dagokionez. Alegia, urruntze txikienetik handienera, honela sailkatuko genituzke birformulatzaileak: a) esplikatiboak (*hau da, alegia, hots...*); b) zehaztaileak (*besteak beste, zehazkiago, zehatz-mehatz...*); c) laburbiltzaileak (*laburtuz, laburbilduz...; azken batean, azken finean...*); d) urruntzaileak (*edozein modutan ere, nolana ere, dena dela...*); e) zuzentzaileak (*hobeto esan, bestela esan...*). Hots, eskala horretan hurrenez hurren urruntze-maila handiagoa adierazten da aurreko formulazioari buruz, parafrasitik<sup>15</sup> zuzenketaraino baikoaz birformulazioan. Geroago ikusiko dugunez, *erran nahi baita* birformulatzailearen erabilera gehienak —baina ez guztiak— bete-betean sartzen dira birformulazio parafrastikoaren barruan.

### 3. Balio oinarritzkoa

Birformulazio esplikatibo bat bideratzeko erabiltzen da *erran nahi baita*: hots, aurrerago diskurtso atal batean adierazitakoa azaltzera, argitzera, osatzera edo zehaztera datorren diskurtso atal bati bide egiteko. Espide horretaz baliatzen da esataria

<sup>15</sup> Birformulatzaileak sailkatzean, beste irizpide orokorrago bat oinarri hartuta, 'parafrastiko/ez-parafrastiko' bereizkuntza (gutxi gorabehera, 'baliokidetza diskurtsiboa / baliokidetzarik eza') proposatu dute autore batzuek (ikus, besteak beste, Gülich eta Kotschi 1983, 1987, 1995, Bach 2001, Garcés Gómez 2008: 71-75): irizpide horren arabera, parafrastikotzat hartuko genituzke, zalantza handirik gabe, esplikatiboak (esplikatibo batzuk, behinik behin); eta beste muturrean, ez-parafrastikotzat hartuko genituzke zuzentzaileak.

esan berri duena modu argiago batez birformulatzeko: haren bidez esatariak ohartzazten edo iragartzten dio hartzaileari lehenago adierazi duenari buruzko azalpen bat datorrela *erran nahi baita* esapideak txertatzen duen diskurtso atalean.

Aurreko enuntziatuari ‘birformulakizun’ esango diogu, eta azalpen berriari ‘atal birformulatzailer’ edo, oro har, ‘birformulazio’. Diskurtsoaren harian birformulazioa geratzen da indartuta edo nabarmenduta; hortaz, hura hartu behar da aintzat eta ez birformulakizuna.

Beraz, diskurtsoan lehenago —birformulakizunean— adierazitakoa argitzera edo azaltzera dator atal birformulatzaileria.

- (2) {*Apirilaren lehenaren antzekoa da Hegoaldeko inuxentent eguna*}, [*erran nahi baita* edozein gezur saka daitekeela abenduaren 28-an], hala nola egiten den Iparaldean apirilaren 1-ean. [EPD-prentsa, Herria]

Birformulakizuna	<i>Apirilaren lehenaren antzekoa da Hegoaldeko inuxentent eguna,</i>
Azalpena: atal birformulatzaileria	<i>erran nahi baita</i> edozein gezur saka daitekeela abenduaren 28an,...

- (3) Eta, gure legearen arabera ez baita haizu apez bati Erromatik ohore edo distintzionerik batere hartzea, Frantziako-Gobernuaren baimena galdetu eta ardietsi gabe, Gobernu hunen izenean, hemen goratik erraiten dut apez hekeri debekatuko ditugula izan dituzten ohorezko titulu hetaz, batere ez behin ere zerbitzatzea. Eta badut esperantxa, {*Erromako Gortea*}, [*erran nahi baita Aita Sainduaren gobernua*], lehena izanen dela apez horien bere herriaren legea obediartzea aholkatzeko. (...) [EPD, Xuri-gorriak, Xipri Arbelbide (Elkar, 2007) Orr.: 120]

Birformulakizuna	(...), <i>Erromako Gortea,</i>
Azalpena: atal birformulatzaileria	<i>erran nahi baita Aita Sainduaren gobernua,</i>

Aurreko adibideetan ikus daitekeenez, *erran nahi baitaren* bidez lotzen edo kateatzen diren diskurtso atalak (ikus 11. atala) enuntziatu osoak (2) nahiz enuntziatu zatiak (3) izan daitezke, eta askotariko kategoria lexiko eta sintaktikokoak (perpauusak, izen-sintagmak, aditz-sintagmak, izenak, aditzak...).

#### 4. Balioak eta erabilerak

Hona hemen *erran nahi baita* birformulatzaileriak birformulazio-prozesuetan betetzen dituen funtzio nagusiak:

**a) Identifikazio- eta zehaztapen-funtzioa: birformulakizunari erreferentzia jakin bat esleitzea**

Honetan datza birformulazio-prozesua: *erran nahi baita*ren bidez birformulakizunari erreferentzia jakin bat esleitzen zaio atal birformulatzailean; hots, identifikazio edo zehaztapen bati bide egiteko erabiltzen da *erran nahi baita*. Denborazko eta lekuzko esapideak argitzeko erabiltzen da, edota deiktikoen eta sintagma zehaztugabeen erreferentzia identifikatzeko edo zehazteko.

- (4) Gaurko gomita, beraz, Daniel Landart, Donoztirin sortua eta Mugerren bizi. Gau on, Daniel. —Bai zuri ere. Gau on entzuleak. —Bizkorrian? —Biziki ontsa, milesker. —Ez zira denbora txarraren beldur izan hunaraino jitek? —Baterere. Biziki aise egin dut bidaia... {*Etzetik hunaraino*}, [*erran nahi baita Mugerretik Donibane Garazira*]. [EPD, Ez da musik, Menane Oxandabartz (Elkar, 2006) Orr.: 7]
- (5) Orok ikasten dute orratzaren ibiltzen, berrien hausten eta oroz gainetik zaharren apaintzen. Holaxet entsetzen dira oro laneko gustiaren hartzera. Lehenbiziko Baigorriko eskola emaileak ziren serora filles de la Croix deitzen diren horietarik, {*eta serora horiek eskola eman izan dute etxe hortan hogoi eta hamabi urtez*} [*erran nahi baita joan den hilabetearen leheneraino*]. Oraino ere hor izanen ziren superiorak ez balu aspaldi pasatu erretretako adina. Bazituen hiruretan hogoi eta bortz urte. [EPD, Xuri-gorriak, Xipri Arbelbide (Elkar, 2007) Orr.: 174]
- (6) (...) maila honetakoak direla, eta ez daudela Isaiasen, Jeremiasen, Natan profetaren, Ahiah silondarraren eta horien antzekoen maila berean; izan ere, {*horiek*}, [*erran nahi baita, Davidek, Salomonek eta Danielek*], ez zuten hitz egiten eta ez zuten deus erraten izpiritu santuaren bitartez besterik. [EPD, Alderraien gidaria II, Maimonides / Xabier Kintana (2008) Orr.: 164]
- (7) Garazi aldeko Sokorri Katolikoak Piarres Larzabalen «Herriko bozak» antzerkia presentatuko du Donibane Garaziko Vauban gelan, {*Bazko zaharrez*}, [*erran nahi baita apirilaren 19an*], igande aratsalde (15.30) eta ere maiatzaren 3an, beti igandez, tenore berean. [EPD-prentsa, Herria]
- (8) Bizitzeko behar diren baliabideak eskatzeko eta eskuratzeko eskubidea, berriz, ez doakio iduriz bereziki elizaren botereari, baina gehigarri bezala bakarrik, zeren ez baitu Jesus Jaunak bereziki berritarik ezarria, baina naturaren legetik baitator, honek duelakotz agintzen, guk erran bezala, langileari zor zaiola lansaria ematea. Gero, gaineratzen dut, ene ustez, zuzenagoa dela {*Joanes Gersonen zatiketa, elizaren boterea bi partetan soilik banatzen duena*}, [*erran nahi baita ordenakoa eta jurisdikziakoa*]. [PKC, Teologia eta Politika, Martin Azpillkueta / Piarres Xarriton (2006) Orr.: 127]
- (9) Valoistar lehengusu horietariko bat zen Frantziako errege Karlos IX.a, gerla eman berri zigan sugea. Inoiz ez nintzen xehetasun horretaz jabetua. —Orain hi haut. Orain ni ninduen. Beharbada, barne guztia hanpatu behar zitzaidan puntu hartan. Ez zitzaidan hanpatu. {*Nafarroako printzearen anaia nintzen*}, [*erran nahi baita, noizbait erresumako koroa buru gainean jantziko zuenaren haurridea*]. (...) [EPD, Izan bainitzen Nafarroako errege, Aingeru Eplata (Elkar, 2009) Orr.: 13]

- (10) Ez dira guti beren aurpegietan malko arrastoak dituztenak. Arras polit eta hunkigarria dena, xehetasun batengatik izan ez balitz: horietariko bat baino gehiago {*Henrike Borboikoari «Kuku antikristoa!» oihukatzen ziotenetarik*} izanen zen duela hogeitau urte, [*erran nahi baita, erregeri hiriko ateak irekitzeari behin eta berriz uko egiten ziotenetarik*]. Giza arima zein arina eta mudakorra den oroitarazi dio Pedro Agerrek bere buruari. [EPD, Mailuaren odola, Aingeru Epaltza (Elkar, 2006) Orr.: 16]

## b) Biformulakizunaren esanahia edo zentzua argitzea

Aurreragoko enuntziatu oso baten zentzua argitzera datorren birformulazio bati bide egiteko erabiltzen da maiz; baina baita hitz ilun, ezezagun eta arrotzen esanahia azaltzeko.

- (11) Ez dira gauzen izaeran (...) atributu bereko bi substantzia aurkitzen ahal, erran nahi baita (...) elkarrekilako zerbait baduten bi substantzia. {*Eta ondorioz, (...) ez da bata bestearen kausa izaten ahal*}; [*erran nahi baita, ez duela bata ekoizten ahal bestea*]. [EPD, Etika, Spinoza / Piarres Xarriton (1997) Orr.: 39]
- (12) Monclarrek kontuak eginen zituen: arpilatzaileak 4.500 izan beharrean 5.000 izateak ez zuen hiriko biztanleen zorigaitza makurragotuko. Herrixka, berriz, zutik zegoen eta bizirik hango biztanleak. —Zoazte Jaunaren bakean. Gu ailegatu orduko aspaldi itzalia zen {*egiazko borroka*}, [*erran nahi baita, gizonen gizon, buruz buru eta berdinez berdin egiten dena*]. Noraino izan zen hura odoltsua ez dakit. Zubi gotortuan, ate inguruan eta karrketan ez zen soldadu hilik falta. Etsaietarik franko, eta guretarik gehiago. [EPD, Mailuaren odola, Aingeru Epaltza (Elkar, 2006) Orr.: 274]
- (13) Kausitu dute eskola libroetan badela 220 mila eta 810 eskolier eta gobernamentuko eskolatan 133 mila 796 eskolier. Beraz 100 mila eskolier gutiago kausitu dute gobernamentuko eskolatan eskola libroetan baino. Horra beraz non frerak eta serorak kasatu dituzten popularen majoritatearik handienaren nahiaren kontra, eta zendako? {*Gobernamentuko diruaren*} [(*erran nahi baita gure diruaren*)] popularen minoritateari goza arazteko. Izaiten ahal dea gauza hori baino injustuagorik? Ez dugu sekulan hartuko pausurik lege munstro itsusi hori kanbiarazi artino. Ostabat (Eskualduna, 1897.XI.19) Urriaren hogioeta laueko igandian baginien Izuran pesta pollit eta hunkigarri bat. Nexkatuen eskola bat finkatu dugu. [EPD, Xuri-gorriak, Xipri Arbelbide (Elkar, 2007) Orr.: 203]
- (14) —Tripa-ustel zikina! Martintzar astopitua! Ukabila goititu zuen, ni jotzera. Ez ninduen jo. Zaldia trostan jarrita urrundu zen nire ondotik. MIOSENSEK bezala, {*lo cosin edo lo cosin basco*} erraten hasi zitzaizkidan Henrikeren segizioan. [*Erran nahi baita, «lehengusua» edo «euskaldun lehengusua»*]. Henrikek den-denen aitzinean eskaintzen zidan konfiantzazko tratuak etorki bat izan behar zuen, eta ez zuten oker jo ahaidetasunari egotzita. Bien arteko eite izugarriak horren alde egiten zuen. Mailan tronpatu ziren, ez bertze deusetan. Henrikek hamaika irri egin zituen horren kontura.



- [EPD, Izan baintzen Nafarroako errege, Aingeru Epaltza (Elkar, 2009) Orr.: 58]
- (15) Alabaina ere, anitz nondik heldu garen eta gure arbasoek kontatu istorio zaharren erroak jakin nahiak erabilarazten gaitu, egarri horien asetzeko, ezker eta eskuin kurri. Gure mintzairaren bihotza Mintzaira guziek errespetua merezi dute, nonahikoak izan ditzen, mundu honetako punta batetarik eta besteraino, eta edozein garaikoak. Eta {*guk, euskaldunek*}, [*erran nahi baita euskaradunek*], nolaz ez genezake maita gure mintzaira aiten aitek utzi daukuten altxor bizi bat bezala? Nork ahantz ditzake aita eta amen altzoan pasatu orenak, heiegandik ukan karesa edo laztan goxoak, gure paregabeko hizkuntza lagun? Batez ere zerbait min edo nahigabek harrapatu ginaudelarik... [EPD, Luzaiden gairi 2, Angel Aintziburu (Elkar, 2009) Orr.: 182]
- (16) Ustekabeak eta ikarak bat egin zuten Etiennenren begi gorrietan. Mozkor balego bezala kulunkatu zen, ezpata beti eskuan. Orduan ikusi nuen, hara!, gezi baten hegala haren besaburuan ageri. {*Zalu*} jokatu nuen; [*erran nahi baita, bisaian ostiko bat hartu berritan inork jokatzin abal duen bezain zalu*]. Agondo gabe itzuli nintzen. Nire bizkarrak bulkatuta, lurra gider erdiraino hurrupatua zuen sastagaia. Beharrik lehen tirakoan atera nuen argira. Etienne ezpata berriz ere goititzeko ahaleginean zebilela joan nintzaion gainera. [EPD, Mailuaren odola, Aingeru Epaltza (Elkar, 2006) Orr.: 203]

### c) Biformulakizunaren esanahia zabaltzea: definizioa

Birformulakizuneko hitz edo termino baten esanahia argitzera datorren birformulazio bati bide egiteko erabiltzen da: definizio bidez argitzen da atal birformulatzailan birformulakizuneko hitz edo terminoa.

- (17) L. apezari, (iduriz, Luilier betarramista) gauza bertsuak idazten zizkion: lehen batean diosesako kongregazione bezala baizik ez zuela onartua izan nahi, Katedraleko erretorarekin mintzatua zela eta haren gain utzi zuela gaiaren hunkitzea apezpikuarekin mementorik egokienean. Bainan apezpikuaren erabakiek obra osoa suntsitzen zutela. Kongregazioko apez gehienak Hazparden izanez urteko erretretarentzat elgarrekin mintzatu zirela eta aho batez, bakar batek huts egin gabe, erabaki zutela Batikanon eskatzea {«*exem-zioa*»}, [*erran nahi baita, zuzenean Batikanoren menpeko izatea*]. (...) [EPD, Janpierre Arbelbide, Xipri Arbelbide (Egan, 2005) Orr.: 94]
- (18) Gorputz bat, aldiz, ez du gogoeta batek mugatzen, ez eta ere gorputz batek gogoeta bat. {*Substantzia deitzen dut, bere baitan den eta bere baitarik uler-tzen den zerbait*}; [*erran nahi baita, beste gauza baten kontzeptuaren beharrik gabe, haren kontzeptua moldatzen den zerbait*]. [EPD, Etika, Spinoza / Piarres Xarriton (1997) Orr.: 33]
- (19) Bazutela ere kanpainetan {*dexima*}, [*erran nahi baita orotarik hamargarren parte*]: ogia pikatzen zenean, hamar espaldetarik bat apezarentzat; ogia jotzen zenean, hamar gaitzurretarik bat apezarentzat. [EPD, Xuri-gorriak, Xipri Arbelbide (Elkar, 2007) Orr.: 243]

- (20) Ez letzione emateko bainan lekukotasun simple gisa. Sarkin. Guen oroime-  
nean ez dugu nihun aurkitzen baztertuak izan garelako sendimendurik: ez  
dugu sekulan, gure baztertzeko xede bat bezala hartu, jende batzuek beren.  
mintzairan —ezagutzen ez dugun batean— mintzatzea. Izan dadin elizan  
edo hemen baratzezainak beren artean mintzo zirelarik. Pertsonalki, nere  
burua {«intrus» edo sarkin batentzat} hartu dut, [*erran nahi baita norbeit  
bertzeen artean kokatzen dena nehorik funski gomidatu gabe*]. [EPD-pren.,  
Herria]

#### d) Biformulakizunaren esanahia laburbiltzea: izendapena

Batzuetan alderantziz gertatzen da: etiketa edo izendapen baten bidez laburtzen da atal birformulatzaillean birformulakizuneko enuntziatuaren esanahia.

- (21) Erran ditake beraz sahets bide horretarik lortu zuela bere helburua: Ame-  
riketako euskaldunek apezak izatea. Behin baino gehiagotan entzun dute  
beneditar zenbaitek nola zaldiz ibiltzen ziren hango fraideak Pampa zaba-  
lean zeuden Euskaldunen ebanjelizatzen. Horietarik batek zien erran Eus-  
kaladunei haien bekatu nagusia zela, {azeri gorriak izatea}, [*erran nahi baita,  
bekaizkeria*]. (...) [EPD, Janpierre Arbelbide, Xipri Arbelbide (Egan, 2005)  
Orr.: 94]
- (22) Nahi nuke, bai segur, batasun hori argitzen baliezagu bere kausa hurbila-  
ren arabera. Baina, berak Izpiritua asmatua zuen halako gisaz Gorputzaren  
ezberdina non ez baitzegokioken neholako kausa singularrik ez haien bata-  
sunari ez Izpirituari berari eta dei egin behar izan baitzion {*Mundu Osoaren  
Kausari*}, [*erran nahi baita Jainkoari*]. [EPD, Etika, Spinoza / Piarres Xarri-  
ton (1997) Orr.: 533]
- (23) (...) era berean gure pasarte honetan “beti zoriontsuak izan gaitezten» hitzek  
ideia berbera adierazten dute erabat, hau da, {zoriontasun eta egonkortasun  
osoko mundura iristea}, [*erran nahi baita, betiko iraunkortasunera (=hilezin-  
tasunera)*], baina beste hitzok, «eta Hark bizia kontserba diezagun» gorpu-  
tzezko lehengo bizitzari buruzkoak dira, denbora batez dirauenaz, eta horren  
ordena bikaina gizarte-elkartearen bidez baizik ezin ezar daiteke, erakutsia  
dugun bezala. [EPD, Alderraien gidaria II, Maimonides / Xabier Kintana  
(2008) Orr.: 276]

#### e) Beste balio batzuk: ondorioa, dedukzioa, konklusioa, laburbilketa, zuzenketa...

Bestalde, zenbaitetan —testuingurua lagun— aipatutakoez bestelako balioak bereganatu ditzake *erran nahi baita* markatzaileak. Izan ere, birformulatzaillean esplikati-  
boak, birformulazioaren nolabaiteko hiperonimoak direnez, gai dira erabilera  
markatuetan bestelako balioak (ondorioa, dedukzioa...) eta birformulazio motak  
adierazteko (zuzenketa, laburbilketa, berrazterketa...).

Zenbaitetan eragiketa testual argumentatiboak betetzeko erabiltzen dira birfor-  
mulatzaile esplikatiiboak: batez ere, ondorioa eta konklusioa adierazteko (ikus Garcés

Gómez, 2008: 87-104). Izatez, hori ez da birformulatzaile esplikatiboen funtzio prototipikoa, baina, testuingurua lagun, ondorioa eta bestelako funtzio argumentatiboak bereganatzen dituzte inferentzia-prozesuetan.

Inferentzia-prozesua gertatzen denean ondorio edo dedukzio bati bide egiteko erabiltzen da *erran nahi baita*: ondorio subjektiboa, emaitza, dedukzioa... Atal birformulatzailearen hasieran paratzen da beti birformulatzailea eta identifikaziotik edo baliokidetzatik harantzago doa bi atalen arteko lotura: birformulazioa ez da oinarritzen parafasian, inferentzian baizik. Informazioaren egituraren aldetik, iruzkin berriak ez du errepikatzen lehengo mintzagaia, baizik eta aurreko enuntziatutik ondoriozta daitekeen zerbait gaineratzen du: (24) adibidean, esaterako, birformulakizunean adierazten denetik (*bere zorrari uko egiten du*) harantzago doa birformulazioa (*erran nahi baita garbi garbia ohoingua bat egiten duela*).

- (24) Erreboluzione handiaren denboran, duela ehun urte, gobernamentua jabetu zen ontasun heietaz; bainan ordaintzaz hartu zuen engaiamendua apezten pagatzeko. Apezteri emaiten dion paga ez da beraz zor haren pagamendua baizik; denbora hartan hartu zuen kapitalaren interes suerte bat xoilik. {*Beraz gobernamentuak paga kentzen duenean apezteri, bere zorrari uko egiten du*}; [*erran nahi baita garbi garbia ohoingua bat egiten duela*]. Aldiz beren gezur eta kalomnia tzarrez paga horiek galarazi dituzten guziak, gobernamentuaren ohointzan kosent edo partalier dira. Heien hobena izigarria da; ez ginuke segur halako heien plazan izan nahi. [EPD, Xuri-gorriak, Xipri Arbelbide (Elkar, 2007) Orr.: 114]
- (25) Heien jokoa litake {*Charia delakoa hedatzea herri osoan*}, [*erran nahi baita islamisten lege dorpeenaren pean ezartzea herria eta jendea*]. [EPD-prentsa, Herria]
- (26) Zenbat eta gorago iganen baita maila horretako bakoitzaren ezagutza, {*hainbat eta hobeki ezagutuko ditu bakoitzak bere burua eta Jainkoa*}, [*erran nahi baita hainbat ere beteginago eta zoriontsuago izanen dela*], ondoko proposizioek hobeki erakutsiko duten bezala. [EPD, Etika, Spinoza / Piarres Xarriton (1997) Orr.: 575]

Elkarrizketa baten harian galderazko enuntziatu beregain bat osatzeko gauza da *erran nahi baita* birformulatzailea. Solaskideari azalpen zehatzago bat edo birformulazio argigarri bat eskatzeko erabiltzen da ('heterobirformulazioa'):

- (27) —Ulertzen duzu... nire langileek nahi izan dutelarik greba egin gehiago pagatuak izateko gisan, behar izan ditut kanporatu... Ondorioz, lantegiaren erdia bota eta, bakea ukan dut! —Zenbat pagatzen dituzu zure langileak? —eskatu zion bilo luzeak zituen mutikoak. {—*Hemengo legeak aipatzen duen minimoa baino gehiago!*} [—*Erran nahi baita?*] —150 pesos egunean. 3 euro inguru. Minimoa baino %25 gehiago! Gehiago ezin dut! Zinez! Lan sariak igotzen banitu lantegia itxi beharko genuke! Mikelek ez zion ezer erran baina harritzen zen ikustea zer segurtasunarekin gazte horrek zituen langile familia osoak miseriara bota! [EPD, Skyroom, Ramuntxo Etxeberri (Elkar, 2004) Orr.: 212]

## 5. Literatura-tradizioa. Euskal hiztegiak

Orotariko Euskal Hiztegiaren arabera<sup>16</sup>, Iparraldeko tradizioan baizik ez da erabili izan *erran nahi da/baita* birformulatzaila. XIX. mendearen amaieratik aurrera *erran nahi baita* aldaera nagusitu zitzaion esapide zaharrari (hots, *erran nahi da* esapideari):

ERRAN NAHI DA (L ap. A; Ht *VocGr*, Dv), BAITA. Es decir. *Tr.* De uso casi general en la tradición septentrional (pero no en Axular); no lo documentamos al Sur. Con *baita*, *beit*, es hasta finales del s. XIX, bastante menos frecuente, aunque se encuentra ya, alternando con *da*, en Leizarraga y Tartas (*Onsa* 144); en el s. XVIII lo hallamos en Maister y Lopez. Desde mediados del s. XIX su uso va aumentando, extendiéndose a autores laboranos, y ya desde finales de dicho siglo predomina claramente sobre *erran nahi da*; en el s. XX, sólo encontramos ejs. de este último en Oxobi (177) y *CatJauf*(115).

✱ *Baina orain hobeago bat desiratzen duté, erran nahi baita zelestiala.* Lç He 11, 16. *Estranjerak, erran nahi da, haren fidelén konpainiako ez tiradenak.* Lç Ins B 3v. *Ifernuetara, erran nahi da, ez kondenatuen ifernura, baiña lurraren barreneko lekhu behera batzuetara.* Mat 60. *Erakuts diazadazun gauik gabeko eguna, erran nahi da, zeruko loria.* Harb 16. *Gure arima garbitu behar dugula bekhatu benialetara dituen afekezioe guzietarik, erran nahi da, eztugula borondatezki iduki behar bekatu benialetan.* SP Phil 80. *Jinkoaren erresumaz, erran nahi da elizaz.* Bp I 140. *Bizkaitarrak, erran nahi da eskualdunak, izpiritutsuak dira.* ES 110. *Erran nahi da, Jainkoa baitan esparantza duenak, sentituko duela [...].* He Gudu 47. *Beldürrez gizon zaharrak, erran nahi beita, aragi miserable ezipiritiaren pian orano untsa jarri eztenak, ganiña har dizadan.* Mst III 20, 3. *Hilen naiz; erran nahi da, munduan dituzkedan gauza guztiez gabetua izanen naizela.* Dh 117s. *Bere fiña ukhan zuenaz: / erran nahi da, itho zenaz.* Gy 191. *Galtzak moda zaharrean eginak, erran nahi baita zubi handia zutela.* Elzb PAd 6. *Oren bat irian izan ziren lehen aldikotz Larresoroko elizaren ikertzen, erran nahi baita, imitorio estakuru, elizaz eta elizaren barnekoek jabetzen.* HU Zez 126. *Orai erran nahi baita 1853an.* Zerb Azk 65. v. tbn. AR 132. Lap 35 (V 20).

Sarasolaren Euskal Hiztegian eta Euskaltzaindiaren Hiztegian ('erran' sarreran) *hau da* eta *hots* birformulatzailen bidez azaltzen da *erran nahi baita* esapidearen esanahia, baina azpisarrerarik eskaini gabe:

1 erran, erraten (1627) edo erraiten (1545). du *ad.* (1545) *Sort.* (Laguntzaile-rik gabe ere jokatzeko da: dio; zioen; diotso; ziotson; banerra, balerra; lerrake; berra, errazu, berrate.). Esan. *Erran nahi baita:* hau da, hots. *Erran gabe doa:* esan beharrik ez dago. *Hazi ona behar dela, hori erran gabe doa; ez erein dudako hazirik.*

Eta Hiztegi Batuan ere adibideen bitartez eta azpisarrerarik eskaini gabe azaltzen da esapidearen esanahia:

erran 1, erraten. du *ad.:* *erran gabe doa* ('ez dago esan beharrik'); *Jainkoaren erresuma, erran nahi da, Eliza; hilko naiz, erran nahi da gauza guztiez gabetua izango naizela; orain, erran nahi baita, 1853an.*

Azkueren hiztegian (*Diccionario Vasco-Español-Francés*, DVEF) ez dago jasoa *erran nahi baita* birformulatzaila, eta Lhanderenean honako argibide soil hau baino ez dator: "(Hb.) c'est-à-dire".

<sup>16</sup> [http://www.euskaltzaindia.net/index.php?option=com\\_oeh&Itemid=413&lang=eu&sarrera=erran&view=frontpage&xeh=23](http://www.euskaltzaindia.net/index.php?option=com_oeh&Itemid=413&lang=eu&sarrera=erran&view=frontpage&xeh=23)

## 6. Forma eta jatorria: lexikalizazioa eta gramatikalizazioa

*Erran nahi da* predikatuaren nolabaiteko gramatikalizazioz sortua da birformulatzailerik. Izan ere, OEHko azalpenen arabera, tradizio zaharrean *erran nahi da* aldaera izan zen erabiliena; gero, XIX. mendearen amaieratik aurrera *erran nahi baita* aldaera nagusitu zen, XX. mendean beste esapidea (*erran nahi da*) ia erabat ordeztaraino.

Nire ustez, ez da kasualitatea *erran nahi baita* aldaera nagusitu izana. Izan ere, *bait-* flexio-aurrizkia dela medio ondo bereizten da birformulatzailerik gisa predikazio arruntetik eta modu argiagoan betetzen du diskurtsoaren mailako eginkizun enuntziatiboa: alegia, alde batetik, predikatuaren aldaera aurritzidun jakin bat (*erran nahi baita*, eta ez, esate baterako, *erran nahi baitut*) finkatu da (lexikalizazio-prozesua<sup>17</sup>); beste alde batetik, funtzio diskurtsibo jakin bat (birformulazioa) betetzeko espezializatu da esapide flexioduna, ohiko sintaxiaren legetatik aparte eta menderakuntza-erlaziorik adierazi gabe<sup>18</sup> (gramatikalizazio-prozesua<sup>19</sup>).

## 7. Alderak egungo euskara estandarean: *erran/esan nahi baita*; *erran/esan nahi da*

OEHk azpimarratzen duen joerari eusten zaio gaur egungo euskaran ere: alegia, aldaera lexikalizatu aurritziduna (*erran/esan nahi baita*) da nagusi birformulatzailerik gisa. Hona gure corpusak eman dizkigun datuak:

*Erran/esan nahi baita*: 866 agerpen

*Erran/esan nahi da*: 219 agerpen

—*Erran nahi baita*: 455 agerpen

—*Erran nahi da*: 47 agerpen

—*Esan nahi baita*: 411 agerpen

—*Esan nahi da*: 172 agerpen<sup>20</sup>

Gure corpusaren arabera, *erran nahi da* aldaera klasikoen itzulpenetan agertzen da batik bat birformulatzailerik gisa: bereziki Piarres Xarritonek erabili du aldaera zahar

<sup>17</sup> Martín Zorraquinok (2010: 96) azaltzen duenez: “La constitución interna de los marcadores del discurso refleja a menudo un proceso de lexicalización (de fijación) —muchos de los marcadores son, como se ha indicado, locuciones de distinto tipo—, combinado con un proceso de gramaticalización”. Zenbait diskurtso-markatzailerik, bestalde, predikatuetatik sortuak dira (ibid., 163): “Ciertas oraciones, fijadas también, han dado lugar a ciertos marcadores del discurso: *esto es, es decir, vale decir, o sea* (y *o sea, o séanse*) (cfr. Casado Velarde, 1991). Y, como hemos visto, otros marcadores del discurso son el resultado de la fijación de formas verbales apelativas: *mira, oye, anda, vamos*, etc. o performativas: *digo, quiero decir*, etc.”

<sup>18</sup> *Erran nahi baita* diskurtso-markatzailerik birformulatzailerik kasuan, *bait-* flexio-markaren (aurrizkiaren) agerpenak erakusten duenez, badugu nolabaiteko lexikalizazioa eta gramatikalizazioa. Izan ere, birformulazioetan *erran nahi baita* perpausa ez da menderatua —alegia, ez dago beste aditz, izen, adjektibo edo aditzondo nagusi baten mende (Euskaltzaindia 1999: 5-6)— eta, beraz, *bait-* aurritzia ez da menderagailu.

<sup>19</sup> Honela azaltzen du Cuenca-k (2012: 282) zer den gramatikalizazioa: “La gramaticalización presupone: a) un cambio de categoría (reanálisis), por el que un elemento léxico pasa a ser gramatical o una gramatical desarrolla una nueva función gramatical, y b) una modificación del significado (cambio semántico), que implica una pérdida o esquematización del contenido semántico denotativo y un incremento de los valores pragmáticos, de tipo procedimental.”

<sup>20</sup> *Erran/esan nahi da* horietatik batzuk ez dira birformulatzailerik, predikatu hutsak baizik. Aldiz, *erran/esan nahi baita* guztiak (edo ia guztiak) birformulatzailerik dira.

hori pentsamenduaren klasikoen itzulpenetan (Spinoza, Martin Azpilkueta, Francisco de Vitoria...); euskal itzulpenari zahar-kutsua emateko, behar bada.

## 8. Baliokideak

Ñabardurak ñabardura, honako birformulatzailerik hauek ematen dituzte hiztegi-leelek *erran nahi baita* esapidearen baliokidetzat: *hau da, hots, alegia*. Dena dela, sintaxiaren eta posizioaren aldetik (ikus 9. eta 11. atalak), besteak beste, oso bestelako jokamoldea ageri du *erran nahi baita* birformulatzailerik. Izan ere, nahikoa posizio zurruna du perpausaren (atal birformulatzailerikaren hasieran), eta perpausak lotzen dituenen ia beti perpaus osagarria (-la menderagailuduna) gobernatzeko du.

## 9. Posizioa

Gaurko euskararen, betetzen duen funtzioa betetzen duela —hots, iruzkintzailerik aposatua izan (28), zein perpausaren arteko lokailua (29) izan—, atal birformulatzailerikaren hasieran agertzen da, salbuespenak salbuespen (Hegoaldeko idazkeren baten adibide bakanen bat), *erran nahi baita* birformulatzailerik.

- (28) Elkartasun-elkarte frango kezkatuak daude, manifestaldi batzuek ere muntatu dituzte, solasa hedatu baita paperik gabeko etorkinak gisa bat edo beste laguntzen dituenen zigortua litakeela eta gainerat ez guti! Gobernuak berak emana hori erakusterat eta iduriz aski garbi! Arrangura handiak agertu dira hor gainera. Behartsuak laguntzen dituztenek ez diotela jende gaixo horierik galdetzen paperak xuxen dituzten ala ez, beharretan direla ikusiz segurtatzen diotela sokorri zerbait. {*Elkartasunez*}, [*erran nahi baita jendetasunez*]. [EPD-prentsa, Herria]
- (29) {*Xinan, berriz ere arrastatu dute Mgr Zhiguo apezpikua, hamabigarren aldikotz*}, [*erran nahi baita usaia baduela*], baina behar da jakin badirela hango gobernu komunistak onartu apezpiku «ofizialak» eta besteak, eta hau beste hetarik izanki, hots, libertatea mugatua dutela. [EPD-prentsa, Herria]

Birformulatzailerikaren posizio erlatiboki finkoa ere (atal birformulatzailerikaren hasieran, eta, beraz, perpausak lotzean perpaus osagarriaren aurrean), hasita dagoen gramatikalizazio-prozesuaren beste seinale bat da.

## 10. Puntuazioa

*Erran nahi baita* birformulatzailerik, gorago azalduenez, atal birformulatzailerikaren hasieran agertzen da (ia) beti: birformulatzailerikaren aurretik nolabaiteko etena egiten da (idazkeraren puntuazio-zeinu hauetakoren baten bidez adierazia: puntua, puntu eta koma, koma, parentesia) eta ondotik, antzeko maiztasunez, koma zein puntuazio-markarik eza ageri da. Ez dirudi puntuazioa erabilera aposatuaren (sintagmak lotuz) edo aposatu gabearan arabera (perpausak lotuz) aldatzen denik. Are gehiago, testugile berak (ikus ondorengo adibideak) komarekin zein komarik gabe idazten du birformulatzailerik antzeko testuinguruetan. *Herria* astekarian, berriz, askoz ere maizago erabiltzen dute birformulatzailerik ondorengo komarik gabe.

- (30) Ez da, beraz, nehondik ere erraten ahal Jainkoak pairatzen duela beste zerbaitengatik, ez eta ere substantzia hedatua ez dagokiola Jainkozko izaerari, zatikorra asma baledi ere, mugagabea eta betierekoa dela onartzen den ber. Baina horretaz badugu oraingotz aski erranik. XVI<sup>o</sup> Proposizioa Jainko izaeraren ezinbestekotasunetik etorri beharrekoak dira, kontaezinezko modutan etorri ere, {*kontaezinezko gauza guztiak*}, [*erran nahi baita mugagabeko adimenaren menpe sar ahala gauza*]. [EPD, Etika, Spinoza / Piarres Xarriton (1997) Orr.: 67]
- (31) Alta bada, gizakiek kontutan har balezate substantziaren izaera, batere dudarik gabe ikus lezakete zein den zuzena 7<sup>o</sup> Proposizioa. Gehiago oraino, guztiak axiomatzat har lezakete proposizio hori eta egia komunen lerroan sar. *Substantzia*, {*ezen, dei lezakete bere baitan existitzen den eta bere baitarik ulertzen den zerbait*}, [*erran nahi baita, ezagutua izateko beste gauza baten ezagutze beharrik ez duen zerbait*]. [EPD, Etika, Spinoza / Piarres Xarriton (1997) Orr.: 43]
- (32) Ez dira gauzen izaeran (...) atributu bereko bi substantzia aurkitzen ahal, erran nahi baita (...) elkarrekilako zerbait baduten bi substantzia. {*Eta ondorioz, (...) ez da bata bestearen kausa izaten ahal*}; [*erran nahi baita, ez duela bata ekoizten ahal bestea*]. [EPD, Etika, Spinoza / Piarres Xarriton (1997) Orr.: 39]
- (33) Izadian, ordeza, hutsarterik ez denaz geroz (horretaz bestalde aritu gara) eta hutsik ez dadin izan alde guztiak elkarri loturik egon behar baldin badute, {*ondorioz, ateratzen da alde horiek ezin bereiziak direla egiazki*}, [*erran nahi baita substantzia gorpuzkina, substantzia den bezainbatean, zatiezina dela*]. [EPD, Etika, Spinoza / Piarres Xarriton (1997) Orr.: 65]
- (34) Zerbait erran behar badugu, bestalde, arruntean Jainkoaren kontu ezartzen dugun adimenaz eta nahimenaz, hona ohar bat: Jainkoaren esentzia betierekoari baldin badagokio adimenaren eta nahimenaren jabe izatea, bi atributu horiez arruntean ulertu ohi denaz besterik aditu behar da zinez. {*Zeren, Jainkoaren esentzia osa lezaketen adimenak eta nahimenak gure adimenaz eta gure nahimenaz guztiz ezberdinak izan behar lukete eta izena baizik ez lukete elkarrekilakorik*}; [*erran nahi baita zakurra deitzen den zeruko zeinua eta zaunka egiten duen animalia bezala litezkeela elkarrekin*]. [EPD, Etika, Spinoza / Piarres Xarriton (1997) Orr.: 71]

Azpimarratzekoa da (32) adibidearen moduko testuetan —non birformulatzailleak perpausak lotzen baititu— ez dela oso logikoa predikatu nagusiaren (*erran nahi baita birformulatzaillearen*) eta predikatu horrek gobernatzen duen perpaus osagarriaren artean koma bat agertzea (*erran nahi baitu, ez duela bata ekoizten ahal bestea*), koma horrek prosodian nolabaiteko etena adierazten baitu. Alegia, halakoetan nolabaiteko tirabira dago sintaxiaren eta puntuazioaren artean, eta puntuazio-markak (komak, alegia) agerian uzten du gramatikalizazio-prozesua hasita dagoela.

## 11. Sintaxia

*Erran nahi baita* birformulatzailleak perpausaren esparruan nahiz perpausetik gorako mailan betetzen du bere eginkizun diskurtsiboa. Alde batetik, perpaus baten ba-

ruan, elementu baten eta elementu hori azaltzera edo zabaltzera datorren iruzkin baten arteko lotura ezartzeko erabiltzen da (*erran nahi baita* aposatua). Beste alde batetik, testu bateko perpaus biren (edo gehiagoren) arteko lotura semantiko-pragmatikoa (birformulazioa) ezartzeko erabiltzen da (*erran nahi baita* aposatu gabea).

1. *Erran nahi baita* aposatua: aurreragoko sintagma bat —eskuarki, aurreko sintagma— da birformulakizuna.

- (35) Afrikan meningita eritasuna garaitzen hasia da emeki bada emeki, eritasun horren kontra, xertoekin bereziki egin den ekitaldi baten ondotik. Hots, zortzi miliun xertatze egin dituzte, Niger, Nigerian eta Txaden bereziki. Erran behar da holakoak zituztela beharrak, 60.000 jende izanik eritasunak hunkiak eta bi mila hilak ere. Badakite zorigaitzez gaitz horren berri toki horietan: hamar urtetarik itzultzen omen zaie {*eritasuna*}, [*erran nahi baita birus berezi hori*]. [EPD-prentsa, Herria]

Horrelakoetan, batez ere aposaturik (koma artean) edo tarteki gisa (gidoien edo parentesien artean) eman ohi da atal birformulatzaila. Eta sarri askotan halako paralelismo funtzional bat (eta are sintaktikoa ere) egon ohi da birformulakizunaren eta birformulazioaren artean (*eritasuna / birus berezi hori*): paralelismo funtzional horrek, bestalde, badu zerikusia informazio-egiturarekin, eskuarki birformulakizuneko mintzagai bera iruzkintzera baitator atal birformulatzaila (gure testuan, adibidez, galdera berari erantzuten diote bi enuntziatuek: *Zer itzultzen zaie...? Eritasuna / birus berezi hori*). Gainera, gehienetan erlazio parafrastikoa dago bi enuntziatuen artean: hau da, nolabaiteko baliokidetzak diskurtsiboa egon ohi da birformulakizunaren eta atal birformulatzailaren artean.

2. *Erran nahi baita* aposatu gabea: aurreragoko perpaus bat —eskuarki, aurreko perpausa— da birformulakizuna.

- (36) {*Apirilaren lehenaren antzekoa da Hegoaldeko inuxenten eguna*}, [*erran nahi baita edozein gezur saka daitekeela abenduaren 28-an*], hala nola egiten den Iparraldean apirilaren 1-ean. [EPD: Herria].

Bigarren kasu horretan, atal birformulatzaila ez doa aposaturik edo tarteki gisa, baizik eta perpaus berri bati hasiera emanez. Bestalde, ez da egoten paralelismo funtzionalik birformulakizunaren eta birformulazioaren artean eta ez da iruzkintzen mintzagai bera atal birformulatzailan. Askotan, gainera, ez da parafrastikoa bi enuntziatuen arteko erlazioa: esate baterako, birformulakizunaren eta atal birformulatzailaren artean inferentziazko erlazioa ager daiteke.

### 11.1. *Erran nahi baita* aposatu gabea: perpaus biren arteko lotura

Alde batetik, testu bateko perpaus biren arteko lotura semantiko-pragmatikoa (birformulazioa) ezartzeko erabiltzen da.

- (37) Den gutieneko zalantzarik ez balitz ere bestalde arazo honetan, ez litzateke gauza berria teologiako eztabaidak antolatzea dudazko ez diren puntu zenbaiti buruz: Hala nola eztabaidak izaten diren Jainko Gizon Eginari eta fedezko beste artikulu batzuei buruz. Teologiako eztabaidak alabaina ez dira



beti deliberatiboak. {*Askotan demostratiboak dira*}; [*erran nahi baita, egiaren erakusteko antolatzen direla eta ez egiaren frogatzeko*]. [PKC, Indio aurkitu berriak, Francisco de Vitoria / Piarres Xarriton (1993) Orr.: 55]

- (38) Horra zergatik Joanes Pariseko domingotarrak errana duen {*delako botere laikoa Jainkoarenganik datorrela zuzenean*}; [*erran nahi baita Jainkoak emana diola gizonari naturazko arrazoia*], hortik ageri da delako boterea gizakiei eman izan zaiela beren gobernu onarentzat, hori bera errepikatzen zuen bezala Durandusek eta gero berriz Hervaeusek, Joanes Gersonnek eta Jakobek. [PKC, Teologia eta Politika, Martin Azpillqueta / Piarres Xarriton (2006) Orr.: 130]

Gorago esan bezala, atal birformulatzaileraren hasieran jartzen da ezinbestean: hots, birformulazio esplikatiboa adierazten duen perpausaren hasieran. Dena dela, gramatikalizazioa ez da erabatekoa. Izan ere, nahiz eta lexikalizazio- eta gramatikalizazio-prozesuak aurreratuta egon, perpausak lotzen dituenean (erabilera aposatu gabea, alegia), ia beti eskatzen du -(e)la menderagailua birformulazioan: alegia, perpaus osagarria gobernatzen du ia beti. Beraz, semantikaren eta pragmatikaren aldetik *alegia, hots, hau da* birformulatzaileraren kidekoa bada ere, sintaxiaren aldetik oso bestelako jokamoldea du.

- (39) {*Apirilaren lehenaren antzekoa da Hegoaldeko inuxenten eguna*}, [*erran nahi baita edozein gezur saka daitekeela abenduaren 28-an*], hala nola egiten den Iparraldean apirilaren 1-ean. [EPD-prentsa, Herria]
- (40) Izan ere, zientzia fisikoan oso ongi azaltzen da izaki bakoitzak naturan nahi-taez halako helburua ukan behar duela, baina azken xede hori, lau kause-tarik nobleena, espezie gehienetan ezkutaturik gelditzen dela. Aristotelesek etengabeki aldarrikatzen du {*naturak ez duela deus alferrik egiten*}; [*erran nahi baita, naturaren obra orok nahitaez halako helburua ukan behar duela*]. [PKC, Alderriaren gidaria II, Maimonides / Xabier Kintana (2008) Orr.: 212]

Salbuespenak dira -(e)la menderagailua hartzen ez duten birformulazioak:

- (41) —Zu bezala pentsatuko nuen duela zombait urte... Bainan gauza bitxiak badira. Euskara ainitzendako gibelerat ari da, bertzendako berriz aitzinerat, eta beraz, bitxi badirudi ere, {*azken urte hautan goiti egin dugu*}. [*Erran nahi baita, nik uste, eskuara atxiki nahi dutenek betetzen dute eskuara galtzerat aise uzten dutenen ziloa*]. Eta horregatik ez dut erraiten nik hain neke dela... Guk eskuara badakigu, hor ari girenek, ni eta enekin diren beharbada 50 bat lagun, herrietako berriekin idazten dutenak. [EPD-liburuak, Ez da musik, Menane Oxandabaratx (Elkar, 2006) Orr.: 120]

## 11.2. *Erran nahi baita* aposatua: perpaus bereko sintagmen arteko lotura

Perpaus baten barruan elementu baten eta elementu hori azaltzen edo zabaltzen duen iruzkin baten arteko lotura ezartzeko erabiltzen da (ikus Zabala 1996). Hala-koetan, luzera eta maila guztietako kategoria lexikoak eta sintagmak txertatzen ditu *erran nahi baita* aposatuak (ikus Zabala 1996: 118; Martín Zorraquino, Portolés

1999: 4070): izen-sintagmak, adjektibo-sintagmak, adberbio-sintagmak, perpau-sak... Hain zuzen ere, hori da diskurtso-markatzaile honen zeregin nagusietako bat: aposizio gisa txertatzen edo gaineratzen den iruzkin esplikagarriaren balio birformulatzailea agerian uztea.

- (42) Hiru abokatek eta lau lekukoek (Michel Loquet Loire-Atlantique-ko «Chambre d'Agriculture»-ko president ohia, Gérard Onesta Europarlamentuko presidentorde ohia, Jean Foirien Ainharbeko laboraria, Frantxua Maitia hautetsia) argiki erakutsi dute auzi politikoa zela, {*akusazioneak*}, [*erran nahi baita estaduak*], funtsezko argumenturik ez zuelarik Euskal Herriko Laborantza Ganbara elkarte eta hunen presidentaren kontra. [EPD-prentsa, Herria]
- (43) (...) Bigarren lerroan dator diotenaz, {*gorputzeko beste atsegin-mota bat; gorputzaren soseguak eta orekak emaiten duena*}, [*erran nahi baita bakoitzaren nehongo gaitzik gabeko osasuna*]. [PKC, Utopia, Tomas Moro / Piarres Xarriton (1992) Orr.: 197]
- (44) Konparazione, {*gure nortasunari*}, [*erran nahi baita gure euskaldungoari*], batere atxikiak giren ainitz eta ainitz minbera izaiten gira ikusiz nortasun horren begiratzea gatik egiten ditugun galde batzuentzat sekulan ez dela funtsezko arropostu manerakorik! [EPD-prentsa, Herria]
- (45) Kausa finalaren aldetik ere, eliza boterearen helburua da naturaz gaineko egoera izatea graziari esker mundu honetan eta betiereko loriari esker beste munduan; botere laikoaren helburua, aldiz, naturazko egoera da, hots, bizi {*ona eta zoriontsua*}, [*erran nahi baita bertutetsua*], bertute moralek egiten duten bezala arrazoi naturalaren gidaritzapean onargarri, graziadun egiten duen grazia bereziaren beharrik gabe. [PKC, Teologia eta Politika, Martin Azpilkueta / Piarres Xarriton (2006) Orr.: 131]
- (46) Bertutearen bide zail eta dorpeari jarraitzea beraz eta ez bakarrik biziko gozagailuak hastantzea, baina oraino oinazeak gogo onez jasaitea sari baten menturarik batere izan gabe —zer sari izan daiteke alabaina {*atseginik gabe*}, [*erran nahi baita zorionik gabe*], bizi guzia iragan eta deus ez baduzu ukaiten ahal hil ondoan?— erokeria hutsa daukate horrela ibiltzea. [PKC, Utopia, Tomas Moro / Piarres Xarriton (1992) Orr.: 183]
- (47) Horra zergatik gogoratzen zaizkidalarik eta ikertzen ditudalarik gure begien aintzinean lore duten erresuma horiek, ez dut hor ikusten —ez alafede!— aberatsek, Estatuaren izena eta boterea eskuratuz, beren arteko tratuen errazteko muntatzen duten azpijoko bat baizik: nehongo itzulikak eta jukutriak amesten eta asmatzen dituzte, lehenik bidegabeki bildu dituzten ontasunen gal beldurrik gabe atxikitzeko, gero behardun guzien lan eta nekeak ahal bezain guti ordaintzeko eta haietaz ederki baliatzeko. Aberatsek behin erabakiz geroz jukutria horiek oro onartu behar direla {*Herriaren onetan*} [*—erran nahi baita, behardunen beren onetan*]— hori bera aski da lege bihur daitezten. [PKC, Utopia, Tomas Moro / Piarres Xarriton (1992) Orr.: 293]
- (48) Orai artio gure ganik urrun zirenak hurbil ditezela beraz gure ganat! Konpreni dezatela oraiko legeak hobeago izan nahi dituztenak direla egiazko kontserbaturrak edo xuriak eta ez lege horien destruitzaileak. Eta aldiz tron-

patuak direla diotenez {*oraino lehenagoko denborak itzuliko direla*}, [*erran nahi baita errege edo enperadore bat izanen dugula*]. Eta orai akabatuko dugu erraiten dugularik gure adixkideri: «Unioea eta unioea eta beti unioea!» Horra Réveil Basque jurnalaren pentsatzeko manera, eta oraiko orenean errepublikano guziena, zoinen obligazioea baita pentsamendu bat izaita: «Frantziaren ona». [EPD, Xuri-gorriak, Xipri Arbelbide (Elkar, 2007) Orr.: 42]

- (49) Heien jokoa litake {*Charia delakoa hedatzea herri osoan*}, [*erran nahi baita islamisten lege dorpeenaren pean ezartzea herria eta jendea*]. [EPD-prentsa, Herria]

Perpauaren mailatik beherako sintagmak birformulatzen direnean —ikus goragoko (42) eta hurrengoak—, halako funtzio-paralelismoa egon ohi da birformulakizunaren eta birformulazioaren artean, eta atal birformulatzailean ez da erabiltzen perpau osagarririk (alegia, ez dago -la menderagailurik). Batzuetan (ikus 50 eta 51), nahiz eta birformulakizuna izen-sintagma baten bidez adierazia egon (*gauza hori, gauza zakiten bat...*), perpau osagarri baten bidez garatzen da delako ideia hori birformulazioan, birformulakizuneko aditzak (*kondutan hartuz, seguratzen du*) perpau osagarria gobernatzeko baitu.

- (50) {*Oinarrizko gauza hori*} kondutan hartuz, [*erran nahi baita etzuela herriak baztertzaille egintza bat egiten guregan, bainan guk genuela sarkoikeria bat egiten haren baitan*], jakin nahi izan dugu, guen baitarik, ez erkidegoak zer egin behar zuen guretzat, gu ongi senti gintezen, bainan guk zer egin behar genuen, den bezalako erkidego horren barne izateko. [EPD-prentsa, Herria]
- (51) Bainan letra bakar bat agertu du, bere azpiko Apezpiku batena, St Denis de la Réunion-eko apezpiku Fuzet Jaonarena. Letra horrek lehenik seguratzen du {*gauza zakiten bat, bainan orai artio hain klarki frogatua izan ez zena*}, [*erran nahi baita, Aita Sainduaz on hartuak izan direla Lavigerie Kardinal Jaonak erran dituen eleak, egin dituen gauzak*]. Erromatik etorri da St Denis-eko Apezpiku Jaon hori, eta han Aita sainduaz errezebitua izan da. [EPD, Xuri-gorriak, Xipri Arbelbide (Elkar, 2007) Orr.: 158]

Goragoko adibideetan ikusi denez —ikus (42) eta hurrengoak—, askotan, halako funtzio-paralelismoa ageri da birformulakizunaren eta birformulazioaren artean (paralelismo diskurtsiboa, baina ez nahitaez sintaktikoa): izan ere, gehienetan, atal birformulatzaile aposatuak eta birformulakizunak kasu-marka eta numero bera izan ohi dute; baina, berez, ez dute zertan komunztadura sintaktikoa gorde. Aski da, ondorengo adibideetan ikus daitekeenez, elkarrekin identifika daitezkeen elementuak izatea (ikus Zabala, 1996).

- (52) Orok ikasten dute orratzaren ibiltzen, berrien hausten eta oroz gainetik zaharren apaintzen. Holaxet entseatzen dira oro laneko gustiaren hartzera. Lehenbiziko Baigorriko eskola emaileak ziren serora filles de la Croix deitzen diren horietarik, {*eta serora horiek eskola eman izan dute etxe hortan hogoi eta hamabi urtez*} [*erran nahi baita joan den hilabetearen leheneraino*]. Oraino ere hor izanen ziren superiorarak ez balu aspaldi pasatu erretretako adina. Bazituen hiruretan hogoi eta bortz urte. [EPD, Xuri-gorriak, Xipri Arbelbide (Elkar, 2007) Orr.: 174]

- (53) Afrikako lur eta ur aintzeta beldur haundiak badituzte sarraraziak itsas-lapur eta terrorista frangok {*Nigeria eta Gineako golkotik biziki haratago ere*}, [*erran nahi baita Xina eta Malakako itsasaldeetaraino*]. [EPD-prentsa, Herria]
- (54) Afrikan 53 estatu bildu dira Etiopiako Addis Abeba kapitalean eta beren batasunaren buru hautatu dute Muammar Kadhafi Libiakoa urte batentzat. {*Bigarren urrats bat ere*} nahiko zuen lehenagoko koronel bolbora hunek, [*erran nahi baita Afrikako Estatu Batuen batasuna sortu*], baina ez da hori aldi huntako izanen. [EPD-prentsa, Herria]
- (55) Olerkari alu batek erran omen du elkar maitatzea, ber norabidera begiratzea erran nahi zuela! —Bai... eta? —Memento batez ez dugu gehiago ber gauza begiratu... Alta, arrats guziz, zu oheratu eta, bata bestearen ondoan jartzen ginen eta {*ber norabiderat*} begiratzen genuen... [*erran nahi baita telebista!*] —Telebista! —Eta bai... Telebistak kalte handiak egin zizkion gure bikoteari! Printze edo printzesa batekin ezkontzen zarela uste duzularik, laster iduritzen zaizu igela bilakatu dela! [EPD, Skyroom, Ramuntxo Etxeberri (Elkar, 2004) Orr.: 233]
- (56) Dena ondoko suaren inguruan finitu zen. Jendaki, lagun eta adiskideak, orobat zenbait etsai, gomit dira haren alde telebistak amatatzerat etxeratze bakoitzean. Oharra: Erran gabe doa, familiak, {*titiataraino*} izanki [(*erran nahi baita, barrabilak baino aise gorago*)], ez du errezibitan, ez deus obro gartzigatzen. Eta merzi anitx. Ez diote argitaratu. Inork ez du jakin hilik dela kronikaria... Dena den, inor bera bezainbat libertitu izan bada, kontent. [EPD, Denboraren mugan, Jose Angel Irigaray (Pamiela, 2005) Orr.: 26].

Inoiz edo behin, birformulazio kateatuak ere ager daitezke testuetan (birformulazioa bera errepikatuz edo birformulazioa baliokideak uztartuz). Halakoetan, birformulazio bakoitza aurrekoaren birformulaziotzat har daiteke:

- (57) Georges Bushhautsi-mausitan plantatua da Europanoekin lurralde huntako bisita egin zuenaz geroztik. Doi bat laxaturik bezala, garbiki erran du atsegin duela europearrekin iritzi eta hitz beretan izaitea, hala-nola Iraniari buruzko gauzetan. Egia da herri hori ez zuela komentzio mundialaren batasunean sartzerat utzi nahi Amerikak eta orai ba, Condolezza Rice andere segetari nausiak erran duen bezala. Haatik Iraniaren onartze hori {*baldintza edo kondizionetan bakarrik*}, [*erran nahi baita uranium programa hura hein batean uztekotan, erran nahi baita bomba atomika haren bidean prestu egoitekotan*]. [EPD-prentsa, Herria]
- (58) Gutuziak ba, bainan ez naiz kurritua, batere. —Bainan, hala ere, ongi bizi da Eskual Herrian... —A bai. Eskual Herria, zinez ongi ezagutzen dutala erran dezaket. Batere espanturik egin gabe. {*Ezagutzen dut Eskual Herria*}, [*erran nahi baita, bere osotasunean. Erran nahi baita ezagutzen ditut, bai probintzia guztiak edo bederen probintzia guzietako herri andana bat*]. Xantza hori ukan dut: 18 urtetako hasi nintzan Eskual Herriaren —bere osotasunean berriz diot— bisitatzen, bisitatzen eta preziazten. [EPD, Ez da musik, Menane Oxandabartz (Elkar, 2006) Orr.: 21]

Elkarrizketa baten harian galderazko enuntziatu beregain bat osatzeko gauza da *erran nahi baita* birformulatzailerak: solaskideari azalpen zehatzago bat edo birformulazio argigarri bat eskatzeko erabiltzen da:

- (59) —Ulertzen duzu... nire langileek nahi izan dutelarik greba egin gehiago pagatuak izateko gisan, behar izan ditut kanporatu... Ondorioz, lantegiaren erdia bota eta, bakea ukan dut! —Zenbat pagatzen dituzu zure langileak? —eskatu zion bilo luzeak zituen mutikoak. {—*Hemengo legeak aipatzen duen minimoa baino gehiago!*} [*-Erran nahi baita?*] —150 pesos egunean. 3 euro inguru. Minimoa baino %25 gehiago! Gehiago ezin dut! Zinez! Lan sariak igotzen banitu lantegia itxi beharko genuke! Mikelek ez zion ezer erran baina harritzen zen ikustea zer segurtasunarekin gazte horrek zituen langile familia osoak miseriara bota! [EPD, Skyroom, Ramuntxo Etxeberri (Elkar, 2004) Orr.: 212]

Eskuarki, birformulakizunaren eskuinean —haren ondo-ondoan— jarri ohi da iruzkina sartzen duen atal birformulatzailerak (bereziki, birformulakizuna elementu nominala bada).

- (60) Jujamendua edo kondenezioa emana izanen da {*bilabete hunen 23-an*}, [*erran nahi baita herroka hauk agertzen diren egunean*]. [EPD-prentsa, Herria]
- (61) Errozuete ere lenguaia hoin gal beldur badira, zertako ez diuzten mezak eta besperak heskuaraz emaiten erraitzeko plazan {*gehio nehok mintzatzen eta kasik konprenitzen ez duen lenguaia hortan*}, [*erran nahi baita, latinez*]. [EPD, Xuri-gorriak, Xipri Arbelbide (Elkar, 2007) Orr.: 228]
- (62) Bazutela ere kanpainetan {*dexima*}, [*erran nahi baita orotarik hamargarren parte*]: ogia pikatzen zenean, hamar espaldetarik bat apezarentzat; ogia jotzen zenean, hamar gaitzuretari bat apezarentzat. [EPD, Xuri-gorriak, Xipri Arbelbide (Elkar, 2007) Orr.: 243]

Zenbaitetan, berriz, aditzaren ezker aldean geratzen da birformulakizuna eta haren eskuinaldean birformulazio aposatua: horixe gertatzen da gehienetan, esaterako, birformulakizuna perpausaren galdegaia bada.

- (63) {*Bizi izan den bezala*} urrundu zauku [*erran nahi baita ixil ixila*]. [EPD-prentsa, Herria]
- (64) Ez dira guti beren aurpegiatan malko arrastoak dituztenak. Arras polit eta hunkigarria dena, xehetasun batengatik izan ez balitz: horietariko bat baino gehiago {*Henrike Borboikoari «Kuku antikristoa! « oihukatzen ziotenotarik*} izanen zen duela hogeitau urte, [*erran nahi baita, erregeri hiriko atea irekitzeari behin eta berriz uko egiten ziotenotarik*]. Giza arima zein arina eta mudakorra den oroitarazi dio Pedro Agerrek bere buruari. [EPD, Mailuaren odola, Aingeru Epaltza (Elkar, 2006) Orr.: 16]
- (65) —Aro berria du gure Elizak, aro berria Nafarroako Erresumak... Errana da ministro baikorra genuela Donapaleun. Hamaika urte egin berria nintzen, eta bihotza hanpaturik aditzen nituen haren hitzak. Enekot Ezponda elizkizunaren ondotik ezagutu nuen. {*Erreginarekin ordezkari*} zegoen han, [*erran*

- nahi baita, tenpluaren bigarren ordaintzailearena*]. [EPD, Mailuaren odola, Aingeru Epaltza (Elkar, 2006) Orr.: 108]
- (66) —Lüküze zakur zaharra duk —Katalinak, temi— eta bazakik Joanaren mendekua ez dela oraingoz honaino ailegatuko, errege Karlos bere ilobaren kolera piztu gabe. Horrek ataka gaiztoan eman gaitik. Beharbada {*keinuren bat*} espero zuen niregandik, [*erran nahi baita, aditzera emate bat*] bere hitzen mamiaz jabetzen nintzela. Ez nion halakorik eskaintzen ahal. Etxeberri ministroa anitz mintzatzen zitzaigun Jainkoaren hitzaz eta orobat aitaxi Iruñeko karrikez. Kontrara, deus guti erakutsi zidaten gure erresumen mugen gainean, are gutiago gure errege-erregi-na ustez ahalguztidunen ahalmenen gainean muga horietatik kanpora. [EPD, Mailuaren odola, Aingeru Epaltza (Elkar, 2006) Orr.: 168]
- (67) Eta batean nahiz bertzearekin hain basatiki aritzen, orobat unaturik eta urratu-rik egoten baitziren akabantzan hala bera nola ehiza-lagunak edo maitalea. Halako gehiegikerien ondotik, heriotzaren ataria ukitzeraino eritzen zen, eta hainbat egunetan ohatzetik ez jalgitzen. Gainerako denbora, {*bertzelako eginkizunetan*} ematen zuen, [*erran nahi baita, idazten edo musika sortzen, bere anaia Anjouko dukea gorrotatzen edo bere buruaz gupidatzen*] frantsesek maite ez zutelako. Frantziako egiazko erregea, dudarik gabe, erregina-ama zen. Gorroto nion. Beldur nion. Ez zitzaidan, haatik, harrigarri emazteki bat toki gorenetan ikustea. [EPD, Izan baintzen Nafarroako errege, Aingeru Epaltza (Elkar, 2009) Orr.: 122]
- (68) Orduan, briu-brau, Luzaideko erretoreak, jujeen manuz, erran behar diote espos gazteei gaizki ezkonduak izan direla eta arras kinka txarrean daudela, beren ezkontza ez baita bali. Erraiten du, gainera, sakramentueta hurbiltzeko ez direla gai, juntaturik daudelakoz. Esposek ihardetsi ondoan ez dutela batere berriz ezkontzeko xederik, {*eskomikatuak*} dira, [*erran nahi baita Elizatik kanporatuak*]. Gaixo ondarlarrak! Ez zirena sobera garratzak orduko Elizaren agintari batzuk, holako gaztigu bortitzaren emateko? Beharrik, geroztik, gauzak aldatu dira, eta kristoren bihotz onaren berri eman daukute. [EPD, Luzaiden gaindi 2, Angel Aintziburu (Elkar, 2009) Orr.: 132]

Askotarikoak izan daitezke azalduaren (birformulakizuna) eta azalpenaren (birformulazioa) arteko harremanak: biak izan daitezke mugatuak; biak mugagabeak; edo bata mugagabea eta bestea mugatua.

- (69) Eta, gure legearen arabera ez baita haizu apez bati Erromatik ohore edo distintzionerik batere hartzea, Frantziako-Gobernuaren baimena galdetu eta ardietsi gabe, Gobernu hunen izenean, hemen goratik erraiten dut apez hekeri debekatuko ditugula izan dituzten ohorezko titulu hetaz, batere ez behin ere zerbitzatzea. Eta badut esperantza, {*Erromako Gortea*}, [*erran nahi baita Aita Sainduaren gobernua*], lehena izanen dela apez horien bere herriaren legea obediartzea aholkatzeko. (...) [EPD, Xuri-gorriak, Xipri Arbelbide (Elkar, 2007) Orr.: 120]
- (70) Herritarren kopurua goititu, % 13-z-1999an 860 Aihertar ginen, eta orain 2006ean egin kondaketaren arabera, {*970 Aihertar*} gira, [*erran nahi baita kasik miletara*] heltzen girela. [EPD-prentsa, Herria]

- (71) Orok ikasten dute orratzaren ibiltzen, berrien hausten eta oroz gainetik zaharren apaintzen. Holaxet entseatzen dira oro laneko gustiaren hartzera. Lehenbiziko Baigorriko eskola emaileak ziren serora filles de la Croix deitzen diren horietarik, {*eta serora horiek eskola eman izan dute etxe hortan hogoi eta hamabi urtez*} [*erran nahi baita joan den hilabetearen leheneraino*]. Oraino ere hor izanen ziren superiorak ez balu aspaldi pasatu erretretako adina. Bazituen hiruretan hogoi eta bortz urte. [EPD, Xuri-gorriak, Xipri Arbelbide (Elkar, 2007) Orr.: 174]

Beste diskurtso-markatzaile batzuk ez bezala (*baina, hala ere, ...*), *erran nahi baita* ez da agertzen juntagailuekin batera birformulatzaile-eginkizunean (?*eta erran nahi baita, ?baina erran nahi baita ...*). Salbuespen bakarra aurkitu dugu: *edo* juntagailuarekin.

- (72) Orok dakigun bezala nehon ez da biltzarrerik egiten ahal {*merian egin gabe aintzinetik deklarazione*} edo [*erran nahi baita mera abisatu gabe*]. [EPD-prentsa, Herria]

## 12. Maiztasuna, hizkuntza-moldea (idatzia/ahozkoa), erregistroa eta testu mota

Gaur egun, oso bakan erabiltzen da Hegoaldeko euskara batuan *erran/esan nahi baita* birformulatzailea: aldaera biak kontuan izanda, 1000 agerpen baino gutxiago ditugu corpus osoan (100.000ko 1,3). Datu adierazgarriak dira, baliokidetzat jo ditzakegun beste birformulatzaile esplikatibo batzuek duten maiztasun altuarekin alderatuz gero: *alegia* birformulatzaileak, esaterako, 19.000 agerpen inguru<sup>21</sup> ditu guztira gure corpusean (100.000ko 30,20); eta *hots* birformulatzaileak, 15.000 agerpen inguru (100.000ko 23,68).

Gaur egungo euskara estandarren finkapenari bagagozkio, azpimarratzekoa da ipar-ekialdeko *hots* eta *erran nahi baita* birformulatzaileek izan duten bilakaera desberdina: birformulatzaile gisa erraz eta erruz hedatu da euskara estandarrean *hots* partikula; *erran/esan nahi baita* esapidea, aldiz, ipar-ekialdeko kolorea duten testuetan baino ez da erabiltzen gaurko euskarari.

Gure datuen arabera, *erran/esan nahi baita* ez da ia batere erabili ZIO corpusean, EHUko eskuliburu itzulietan, zuzenbideko testuetan edo Zientzia eta Teknologia corpusean; ezta ETBko dokumentaletan eta Goenkale corpusean ere. Prentsan ere, batez ere Herria astekarian agertzen da eta handik kanpo oso bakan.

Iparraldean eta ipar-ekialdeko idazleen testuetan, ordea, erruz erabiltzen da: testu mota guztietan; lagunarteko erregistroan zein maila zainduan; hizkuntza idatzian zein ahozkoan.

<sup>21</sup> Egia esan, gutxi gorabeherakoak dira *alegia* eta *hots* birformulatzaileen maiztasunari buruz eman ditugun datuak. Izan ere, gure corpusean ez dago modu automatikoan jakiterik *alegia* guztien artetik zein diren birformulatzaile eta zein izen; eta orobat gertatzen da *hots* hitzarekin. Gure datuak hurbilpen bat baino ez dira: ondoren eten bat (koma, bi puntu, puntu eta koma...) duten *alegia* eta *hots* guztiak hartu ditugu birformulatzailetzat.

	Agerpenak <i>Erran nahi baita / esan nahi baita</i>	Maiztasuna: 100.000ko <i>Erran nahi baita / esan nahi baita</i>
A1. ZIO corpusa	0 / 2	0.00 / 0.20
A2. EHUko eskuliburu itzuliak	0 / 2	0.00 / 0.03
A3a. Zuzenbidea / lege-testuak	0 / 2	0.00 / 0.04
A3b. Zuzenbidea / akademikoak	1 / 1	0.04 / 0.04
A4. Pentsamenduaren Klasikoak	217 / 209	2.02 / 1.95
B1a. EPD liburuak	106 / 159	1.03 / 1.55
B1b. EPD prentsa	125 / 9	1.19 / 0.08
B2. ZT Corpusa	6 / 26	0.09 / 0.39
C1. ETBko dokumentalak	0 / 0	0.00 / 0.00
C2. Goenkale corpusa	0 / 1	0.00 / 0.00
<b>Denera</b>	<b>455 / 411</b>	<b>0.72 / 0.65</b>

## 2. taula

*Erran/esan nahi baita* birformulatzailaren maiztasuna

OEHko azalpenen arabera (ikus 5. atala), XIX. mendearen amaieratik aurrera *erran nahi baita* aldaera nagusitu zen, XX. mendean beste esapidea (*erran nahi da*) ia erabat ordeztaraino. Gaur egungo euskararen ere forma aurrizkiduna (*erran/esan nahi baita*) da jaun eta jabe.

### 13. Erdal baliokideak

Gaurko hiztegien arabera honako hauek dira *erran/esan nahi baita* birformulatzailaren erdal baliokideak: gazt. *es decir*; fr. *c'est-à-dire*; ingl. *in other words, that is to say*.

#### ESPAINIERA

OEH (*erran > erran nahi dal/baita*<sup>22</sup>) “Es decir”  
 Elhuyar (*erran nahi da / erran nahi baita*) “Es decir”

#### FRANTSESA

Elhuyar<sup>23</sup> “C'est-à-dire”

#### INGELESA

Elhuyar<sup>24</sup>, Morris<sup>25</sup> “In other words, that is to say”

<sup>22</sup> [http://www.euskaltzaindia.net/index.php?option=com\\_oeh&Itemid=413&lang=eu&sarrera=erran&view=frontpage&xeh=23](http://www.euskaltzaindia.net/index.php?option=com_oeh&Itemid=413&lang=eu&sarrera=erran&view=frontpage&xeh=23)

<sup>23</sup> <http://www.elhuyar.org/hizkuntza-zerbitzuak/EU/Hiztegi-kontsulta>

<sup>24</sup> <http://www.elhuyar.org/hizkuntza-zerbitzuak/EU/Hiztegi-kontsulta>

<sup>25</sup> [http://www1.euskadi.net/morris/indice\\_e.htm](http://www1.euskadi.net/morris/indice_e.htm)



#### 14. Balio diskurtsiboa

Enuntziatioaren elementu garrantzitsua, birformulatzailerik paradigmatikoa: esateriak, lehenagoko formulazio “desegoki” baten ordean bigarren bat jartzen du, egokiagozat jotzen duena. Enuntziatio-ikuspegiaren aldaketa bat bideratzen da (Roulet, 1981, 1987), lehen formulazioa bigarrenari menderatuz (*erran nahi baita...*). Enuntziatio-ikuspegiaren aldaketak ez du esan nahi, hala ere, argudiaketaren norabidea ere aldatzen denik (ikus Larringan, 1996: 245). Diskurtoaren harian nabarmenduta geratzen da, nolabait, *erran nahi baita* birformulatzailerik sartzen duen iruzkina edo informazioa.

Inferentziatzeko prozesuetan —ikus goragoko (24) eta hurrengoak— ondorioa adierazten du *erran nahi baita* birformulatzailerik: aurreko atalean adierazitakotik ondoriozta daitekeen zerbait —batzuetan, ondorio subjektiboa— gaineratzeko balio du.

#### 15. Ez da diskurto-markatzaile

Gehienetan, birformulatzailerik da *erran nahi baita* esapidea. Nolanahi ere, litekeena da testuinguru batzuetan (kausazko perpausetan) birformulatzailerik-zeregina ez betetzea. Hona hemen asmatutako adibide bat:

(73) Ez dute hitza ongi ulertu, testuinguru horretan besterik *erran nahi baita*.

#### 16. Ondorioak

Diskurto-markatzaileen ezaugarri semantiko, sintaktiko eta pragmatiko nagusietako batzuk ditu *erran nahi baita* esapideak: elementu aldagaitza izatea; prozesatze-informazioa bideratzea; eta esanahi kontzeptuala eta operatiboa izatea. Zehatzago esanda, diskurto-markatzaileen artean birformulatzailerik esplikatiboen multzoan sartzen da bete-betean: diskurto-markatzaile honen bidez aurreko enuntziatuan esandakoa (birformulakizuna) birformulatzen du hitzunik, adierazitakoa argiagotzeko edo azaltzeko. Birformulazio esplikatibo bat bideratzeko erabiltzen da *erran nahi baita*: hots, aurreragoko diskurto atal batean adierazitakoa azaltzera, argitzera, osatzera edo zehaztera datorren diskurto atal bati bide egiteko. Esapide horretaz baliatzen da esataria esan berri duena modu argiago batean birformulatzeko: haren bidez esateriak ohartarazten edo iragartzen dio hartzaileari lehenago adierazi duenari buruzko azalpen bat datorrela *erran nahi baita* esapideak txertatzen duen diskurto atalean.

Birformulazio-prozesuetan honako funtzio nagusi hauek betetzen ditu *erran nahi baita* birformulatzailerik: a) identifikazio- eta zehaztapen-funtzioa (birformulakizunari erreferentzia jakin bat esleitzea); b) birformulakizunaren esanahia edo zentzua argitzea; c) birformulakizunaren esanahia zabaltzea (definitzea); d) birformulakizunaren esanahia laburbiltzea (izendatzea); e) bestelako funtzioak (ondorioa, dedukzioa, konklusioa...).

Tradizioko xx. mendeko joerari jarraituz, aldaera aurrizkiduna (*erran nahi baita*) nagusitu da erabat gaurko euskaran, *erran nahi da* aldaera zaharraren gaineratik. Nire ustez, ez da kasualitatea *erran nahi baita* aldaera nagusitu izana. Izan ere, *bait*-flexio-aurrizkia dela medio ondo bereizten da birformulatzailerik gisa predikazio arruntetik eta modu argiagoan betetzen du diskurtoaren mailako eginkizun enuntziatiboa: ale-

gia, alde batetik, predikatuaren aldaera aurrizkidun jakin bat (*erran nahi baita*, eta ez, esate baterako, *erran nahi baitut*) finkatu da (lexikalizazioa); beste alde batetik, funtzio diskurtsibo jakin bat (birformulazioa) betetzeko espezializatu da esapide flexioduna, ohiko sintaxiaren legetatik aparte eta menderakuntza-erlaziorik adierazi gabe (gramatikalizazioa).

Bestalde, gure corpusaren arabera, antzeko maiztasuna ageri dute gaurko prosan *erran nahi baita* eta *esan nahi baita* aldaerek.

Hiztegietan *erran nahi baita* esapidearen baliokidetzat eman ohi dira *alegia*, *hots* eta *hau da* birformulatuak. Baina bistan dago gutxi gorabeherakoa dela haien arteko baliokidetasuna. Izan ere, sintaxiaren eta posizioaren aldetik oso bestelako jokamoldea du *erran nahi baita* birformulatuak: perpausak lotzean, esaterako, mendeko osagarriak (*-la*) gobernatzan ditu (gramatikalizazio-prozesua oso aurreratuta ez dagoen seinale); eta posizioari dagokionez, atal birformulatuaren hasieran paratzen da ia beti (gramatikalizazio-prozesua hasita dagoen seinale).

Puntuazioari bagazokio, birformulatuaren aurretik nolabaiteko etena egiten da (idazkeran puntuazio-zeinu hauetakoren baten bidez adierazia: puntua, puntu eta koma, koma, parentesia) eta ondotik, antzeko maiztasunez, koma zein puntuazio-markarik eza ageri da.

Sintaxiari dagokionez, *erran nahi baita* birformulatuak perpausaren esparruan (*erran nahi baita* aposatua) nahiz perpausetik gorako mailan (*erran nahi baita* aposatu gabea) betetzen du bere eginkizun diskurtsiboa. Lehenengo kasuan, batez ere aposaturik (koma artean) edo tarteki gisa (gidoien edo parentesien artean) eman ohi da atal birformulatuak, eta sarri askotan halako paralelismo funtzional bat (eta are sintaktikoa ere) egon ohi da birformulakizunaren eta birformulazioaren artean: paralelismo funtzional horrek, bestalde, badu zerikusia informazio-egiturarekin, eskuarki birformulakizuneko mintzagai bera iruzkintzera baitator atal birformulatuak; gainera, gehienetan erlazio parafrastikoa dago bi enuntziatuen artean. Bigarren kasuan (erabilera aposatu gabea), atal birformulatuak ez doa aposaturik edo tarteki gisa, baizik eta perpaus berri bati hasiera emanez; bestalde, ez da egoten paralelismo funtzionalik birformulakizunaren eta birformulazioaren artean eta ez da iruzkintzen mintzagai bera atal birformulatuak; batzuetan, gainera, ez da parafrastikoa bi enuntziatuen arteko erlazioa (esate baterako, birformulakizunaren eta atal birformulatuaren artean inferentziatzko erlazioa ager daiteke).

Antzeko balioa duten beste birformulatuak esplikatibo batzuekin alderatuz gero (*alegia*, *hots*, *hau da*), oso bakan erabiltzen da Hegoaldeko euskara batuan *erran/esan nahi baita* birformulatuak. Gaurko estandarren finkapenari bagazokio, azpimarratzekoa da ipar-ekialdeko *hots* eta *erran nahi baita* birformulatuak izan duten bilakaera desberdina: birformulatuak gisa erraz eta erruz hedatu da euskara estandarrean *hots* partikula; *erran/esan nahi baita* esapidea, aldiz, ipar-ekialdeko kolorea duten testuetan baino ez da erabiltzen gaurko euskaran. Iparraldean eta ipar-ekialdeko idazleen testuetan, ordea, erruz erabiltzen da: testu mota guztietan; lagunarteko erregistroan zein maila zainduan; hizkuntza idatzian zein ahozkoan.

Enuntziatioari lotuta azaltzen da *erran nahi baita* birformulatuak esplikatiboaren balio diskurtsiboa: esatariak, aurreragoko formulazio “desegoki” baten ordeztu bigarren bat jartzen du, egokiagozat jotzen duena eta diskurtsoaren harian nabarmenduta geratzen dena. Bestalde, inferentziatzko prozesuetan ondorioa adierazten du *erran*

*nahi baita* birformulatzailerak: aurreko atalean adierazitakotik ondoriozta daitekeen zerbait (batzuetan, ondorio subjektiboa) gaineratzeko balio du.

### Aipaturiko bibliografia

- Alberdi, X., 2011, «Diskurtso-markatzaile berri bat: *hurrenez hurren* birformulatzailerak», *ASJU*, XLV-1, 301-325.
- Bach, C., 2001, *Els Connectors Reformulatius Catalanas: Anàlisi i Proposta d'Aplicació Lexicogràfica*, IULA/Pompeu Fabra, Barcelona, internet: <http://www.tdx.cat/handle/10803/7487>
- Blakemore, D., 2002, *Relevance and Linguistic Meaning: The Semantics and Pragmatics of Discourse Markers*. Cambridge University Press, Cambridge.
- Cuenca, M.J., 2012, «La gramaticalización», in Iraide Ibarretxe-Antuñano, Javier Valenzuela (dirs.): *Lingüística cognitiva*, Anthropos, Barcelona, 281-304.
- Euskaltzaindia, 1990, *Euskal Gramatika Lehen Urratsak-III (lokailuak)*, Euskaltzaindia, Bilbo.
- Euskaltzaindia, 1999, *Euskal Gramatika Lehen Urratsak-V (Mendeko perpausak-1)*, Euskaltzaindia, Bilbo.
- Fuentes, C., 2010, *Diccionario de conectores y operadores del español*, Arco Libros, Madrid.
- Garcés Gómez, M.P., 2008, *La organización del discurso: marcadores de ordenación y de reformulación*, Lingüística Iberoamericana, Madrid.
- Gulich, E. eta Kotschi, T. (1983): «Les marqueurs de la reformulation paraphrastique». *Cahiers de Linguistique Française* 5; 305-351.
- Gulich, E. eta Kotschi, T. (1987). «Les actes de reformulation paraphrastique dans la consultation La dame de Caluire». In: *L'Analyse des Interactions Verbales*. Ed. P. Bange. Berna: Peter Lang. 15-81.
- Gulich, E. eta Kotschi, T. (1995): «Discourse Production in Oral Communication. A Study Based on French». In: Quasthoff. U. (ed.): *Aspects of Oral Communication*. Berlín: De Gruyter, 30-66.
- Larringan, L.M., 1996, *Testu-antolatzaileak bi testu motatan: testu informatiboa eta argudia-penezkoa*, doktorego-tesia, Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea.
- Loureda, Ó., Acín, E., (coords.) 2010, *Los estudios sobre marcadores del discurso en español, hoy*, Arco/ Libros, Madrid.
- Martí Sánchez, M., 2008, *Los marcadores en español L/E: conectores discursivos y operadores pragmáticos*, Arco/Libros, Madrid.
- Martí Sanchez, M., 2011, «Los conectores discursivos (entre los otros marcadores discursivos y los otros conectores)», in Ana M.<sup>a</sup> Cestero Mancera, Manuel Martí Sánchez (coordinadores): *I Jornadas de lengua y comunicación: marcadores discursivos* (<http://www.linred.es/numero9.html>), Anexo monográfico, Universidad de A Coruña, [http://www.linred.es/numero9\\_articulo\\_8.html](http://www.linred.es/numero9_articulo_8.html)
- Martín Zorraquino, M.<sup>a</sup>A.; Portolés, J., 1999, «Los marcadores del discurso», in I. Bosque y V. Demonte (eds.), *Gramática descriptiva de la lengua española*, Espasa: Madrid, vol. III, 4051-4213.
- Martín Zorraquino, M.<sup>a</sup>A., 2010, «Los marcadores del discurso y su morfología», in Ó. Loureda y E. Acín (coords.), *Los estudios sobre marcadores del discurso en español, hoy*, Arco/ Libros, Madrid, 93-181.

- Real Academia Española (RAE), Asociación de Academias de la Lengua Española, 2010, *Nueva gramática de la lengua española, Sintaxis II*, Espasa Libros, Madrid.
- Roulet, E., 1981, «Échanges, interventions et actes de langage dans la structure de la conversation», *Études de Linguistique Appliquée*, 44, 7-39.
- Roulet, E., 1987, «Complétude et connecteurs reformulatifs», *Cahiers de Linguistique-Française* 8, 111-140.
- Vázquez Veiga, N., 2011, «El tratamiento lexicográfico de los marcadores del discurso» in *Linred, Lingüística en la red*, Ana M.<sup>a</sup> Cestero Mancera, Manuel Martí Sánchez (coordinadores): *I Jornadas de lengua y comunicación: marcadores discursivos* (<http://www.linred.es/numero9.html>), Universidad de A Coruña, [http://www.linred.es/numero9\\_monografico1.html](http://www.linred.es/numero9_monografico1.html)
- Zabala, I., 1996, «Testuan iruzkinak sartzeko funtzioa izan dezaketen antolatzaileak: *hau da, hain zuzen (ere), adibidez, batez ere*», in I. Zabala (koord.): *Testu-loturarako balibideak: euskara teknikoa*, Bilbo: Euskal Herriko Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzua, 113-130.

### Aipaturiko hiztegiak

- Elhuyar, *Elhuyar hiztegia*, internet: [http://www1.euskadi.net/hizt\\_el/indice\\_e.htm](http://www1.euskadi.net/hizt_el/indice_e.htm)
- Elhuyar, *Hiztegi kontsulta*, internet: <http://www.elhuyar.org/hizkuntza-zerbitzuak/EU/Hiztegi-kontsulta>
- Euskaltzaindia, 2012. *Euskaltzaindiaren hiztegia*. Andoain: Euskaltzaindia, Elkar, Elhuyar Fundazioa.
- Labayru, *Labayru hiztegia*, internet: <http://zerbitzuak.labayru.org/diccionario/hiztegiararrera.asp>
- Michelena, L., 1987-2005, *Diccionario general vasco-Orotariko euskal hiztegia*, Euskaltzaindia, Bilbo, internet: <http://www.euskaltzaindia.net/oeh>
- Morris, Morris Student Plus, internet: [http://www1.euskadi.net/morris/indice\\_e.htm](http://www1.euskadi.net/morris/indice_e.htm)
- Sarasola, I., 2005, *Zehazki. Gaztelania-euskara hiztegia*, Alberdania: Donostia, internet: <http://ehu.es/ehg/zehazki/>
- Sarasola, I., 2007, *Euskal hiztegia*, Elkar: Donostia, internet: <http://www.euskara.euskadi.net/r59-15172x/eu/sarasola/sarasola.apl>
- Sarasola, I. 2012, *Egungo euskararen hiztegia*, internet: <http://www.ehu.es/eeh/>

### Aipaturiko corpusak

- Ahotsak, internet: <http://www.ahotsak.com/>
- Ereduzko Prosa Dinamikoa (EPD): <http://ehu.es/ehg/epd/>
- Goenkale, internet: <http://ehu.es/ehg/goenkale/>
- Pentsamenduaren Klasikoak, internet: <http://ehu.es/ehg/pkc/>
- Zientzia eta Teknologiaren Corpusa (ZTC): <http://www.ztcorpUSA.net/cgi-bin/kontsulta.py>
- ZIO corpusa, internet: <http://www.ehu.es/ehg/zio/>
- xx. Mendeko Euskararen Corpus Estatistikoa, internet: <http://www.euskaracorpUSA.net/XXmenda/>